

DIRU SARRERAK

Produktu hau ekoizterako orduan, kostuak izateaz gain diru sarrerak ere izango ditugu. Gure enpresak jasoko dituen diru sarrerak ordainketa bakarreko diru sarrerak izango dira, hau da, dirua behin jasoko da eta ordainketa ez da modu erregularrean egingo. Diru sarrerak kalkulatzeko, kostuak kontuan hartu ditugu eta produktuaren prezioa 1985€koa izango dela aurreikusi dugu.

Hasiera batean, prezioa finkoa izango da arbel baten neurri estandarrak erabili ditugulako produktua sortzeko, baina instituzio baten arbelaren bat beste neurri batzuk izanez gero, arbel garbitzaile pertsonalizatu bat egin ahalko genuke eta kasu horretan prezioa pixka bat igoko zen. Horrez gain, produktuak behar den likido garbitzailearen 2 unitate ekartzen ditu, baina noizbait, likido garbitzailea gastatzen bada, bezeroek gehiago erosteko aukera izango dute. Hasiera batean 10€ko prezioa izango du likido garbitzailearen unitate bakoitza.

Kasu honetan, kostu egituraren erabili dugun adibide berdina erabili dugu, hau da, 16 unitate ekoitziz gero zenbateko diru sarrerak izango ditugun kalkulatu dugu eta 31760€ko diru sarrerak izango ditugula ondorioztatu dugu. Likido garbitzailearen kasuan 32 unitate salduz gero 320€ko sarrerak izango genituzke. Hau kontuan hartuta, guztira 32080€ko diru sarrerak izango ditugu guztira. Adibide honetan oinarrituz, gure enpresak 3383€ko irabaziak izango dituela kalkulatu dugu, 16 unite eta 50 likido garbitzaile saltzen baditu. Hau kostuak eta sarrerak kontuan hartuta kalkulatu dugu.

Hau guztia kalkulu-orri honetan zehatzago adierazi dugu:

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/17IrTwg-nalxk7hkUzCKNR6J9zng6ppWZHf5AE90strQ/edit?usp=sharing>